

MIKEL OLANO ▶ IDAZLEA

«Mendiko geografiaren erretratu egitea izan da nire asmoa»

LEITZA ▶ Irun Hiriko Kutxa literatur saria irabazi du 'Azkuko belagian' nobelarekin

HELBURUA ▶ «Noraezean edo gainbeheran ikusten dudan gizartea islatu nahi izan dut», dio ▶ 7



Mikel Olanoren lan berria Durangoko Azokan eskuratu ahaliko da. NAIARA GARZIA



E. EZEIZA

Haurrak, folklorea eta polifonia, gaur Lehiaketan

TOLOSA ▶ Atzo ekin zion 39. Abesbatza Lehiaketak; Suediako eta Eslobeniako Abesbatzek abestu zuten Leidor aretoan ▶ 2-3

TOLOSA ▶

Azaroan ere kultur egitarau oparoa izango da

Babarrun Festa eta Nazioarteko Txotxongiloen Jaialdia izango dira, besteak beste ▶ 3

BERASTEGI ▶

Ekitaldiz blai, hilaren 9an hasiko da aurtengo Kultur Astea

Hilaren 18ra arte egitarau oparoa antolatu dute; onddoen erakusketa ere izango da ▶ 6

Ahotsik ederrenen atzean ere, **kutxa** dago.

Tolosako 39. Abesbatza-Lehiaketa
Urriaren 27tik azaroaren 4ra

Urteko leku bere Gizarte Ekintzaren bitartez, **kutxa** lekuak eman die suten ere **Tolosako Abesbatza-Lehiaketari**, beronen 39. Edizioa abesbatza gara herriaren musika, kultura eta balioak zabaltzearen.

39
2007
11. urte 17. edizioa

gizarte ekintza
kultura

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

39. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

Haurrak, folklorea eta polifonia

I. TERRADILLOS - E. EZEIZA

Tolosako 39. Abesbatza lehiaketako bigarren eguna izango da gaurkoa. Atzo polifonia eta folklore atalean lehiatu ziren bi talde, eta gaurkoan beste hamarika abesbatza entzun ahal izango dira.

Goizean, 11:00etan irekiko dira Leidor antzokiko atekak. Hemen, haurren sailean sei talde ariko dira. Arratsaldean berri helduen txanda izango da. Bi saio izango dira, lehendabizikoa 16:00etan, eta bigarrena 19:30ean. Bietan ere talde berak ariko dira, polifonia eta folklore atalean.

HAUR ABESBATZAK CANTILON CHAMBER CHOIR

Jatorria.

Edmonton (Kanada).

Zuzendaria.

Heather Johnson.

Taldekieak. 30 neska eta bi mutil.

Historia. 1999an sortu zuen Heather Johnson bere gaurko zuzendariak. Kanadako abesbatzarik nabarmenetakoa da. Bere abeslariak musika gaitasunen arabera aukeratu dituzte eta zorrotasun profesionalerlan egiten dute. Sortu zirenetik, nazio eta nazioarte mailako lehiaketetan sari ugari irabazi dituzte.

GIRLS' CHOIR OF OLD TOWN MUSIC HOUSE

Jatorria.

Tallinn (Estonia).

Zuzendaria.

Maarja Soone.

Taldekieak. 40 neska

Haurren abesbatzak izango dira gaur goizean entzungai; arratsaldean folklore eta polifonia ataleko saioa izango da



Suediako Stockholms Musikgymnasiums Kammarkör taldea, atzo Leidor aretoan. ESTI EZEIZA

Historia. Vanalinna Hariduskollegium zentroko ikasleekin 1993an eratu izan zen. Gaur egun abesbatzean hiru maila sortu dira: bi hastapeneko abesbatza, eta kontzertuetako abesbatza. Errepertorioaren ardatz dira, garai desberdinetako musika liturjikoak, Estoniako abesti herrikoiak eta Estoniako konpositoreen musika originalak.

LUIS DORADO UNAMUNO ABESBATZA

Jatorria.

Gasteiz (Euskal Herria).

Zuzendaria.

Inma Arroyo.

Taldekieak. 40 neska.

Historia. 1997an eratu zuen Inma Arroyo bere egungo zuzendariak Gasteizko Luis Dorado Eskolan. Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Oskorriekin eta beste musika taldeekin abestu dute. Haur Abesbatza musikaren sustapenean biziki parte hartzen dute.

ORRERETA ABESBATZA

Jatorria.

Errenteria (Euskal Herria).

Zuzendaria.

Imanol Elizasu.

Taldekieak. 40 neska.

Historia. Jose Luis Ansorenak 1968an eratutako abesbatza.

2004an Kópavogurren (Islandia) Europa Cantatek antolatutako nazioarteko astean parte hartu zuten. Susan Knighten zuzendaritzapean zenbait tailerretan parte hartu zuen. 2006ko uztaillean, Pablo Malo zuzendariaren La sombra de nadie filmerako, Aitor Amezagak konposatutako soinu bandaren zati bat grabatu zuten.

VÖRÖSMARTY-ERKEL CHILDREN'S CHOIR

Jatorria.

Budapest (Hungria).

Zuzendaria.

Sandor Kabdebó.

Taldekieak. 40 neska.

Historia. Vörösmarty Eskola duela 50 urte ireki zen. Hungariako musika heziketa maila altuko lehen hezkuntzako ikastetxeetako bat da. Belaunaldi askori erakutsi dio musikaren ulermen hobea izatea eta bere ikasle asko ibilbide profesionalerako bidea jarri ditu. Zenbait alditan urrezko dominak eta lehen sariak irabazi ditu nazio nahiz nazioarteko lehiaketetan.

MOSKUKO MUSIKA PEDAGOGIA ESKOLAKO ABESBATZA

Jatorria. Mosku (Errusia).

Zuzendaria.

Tatiana Leonova.

Taldekieak. 38 neska eta bi mutil.

Historia. Moskuko lekurik zahar eta bitxienetako batean dago Moskuko Pedagogia eskola. 1983an eratu zen Marks Kesselen zuzendaritzapean. Giza zientziak, Natur zientziak eta Matematikak ikasteaz gain, bere ikasleek musika arloko ikasketa sakonak jasotzen dituzte. 1996tik abesbatza Tatiana Leonovak zuzentzen du. Hauen errepertorioan abesti herrikoien moldaketa ugari sartzen dira.

POLIFONIA ETA FOLKLOREA CORO DE CAMARA OLDENBURG

Jatorria.

Oldenburg (Alemania).

Zuzendaria.

Johannes von Hoff.

Taldekieak. 18 emakume eta 18 gizonezko.

Historia. Oldenburg Ganbara Abesbatza 1986an sortu zuen Johannes von Hoff bere gaurko zuzendariak. Astero entsaiatzen duten 40 abeslarik osaturik dago. Musika maila artistikoa nazio eta nazioarte mailan irabazi dituzten sarietan nabari da, XX. eta XXI. mendeetako obrei arreta berezia eskaintzen die abesbatzak.

VOCAAL ENSEMBLE CANTANDO

Jatorria.

Havenen (Belgika).

Zuzendaria.

Luc Anthonis.

Taldekieak. 19 emakume eta 14 gizonezko

Historia. Bere ibilbidea 1989ako iraillean hasi zen. Audizio bidez zuzendariak abeslariak aukeratu ditu Cantando taldeko ezaugarri gisa abesbatza soinu homogeenoa bat sortzeko asmoz. Cantando errepertorioa musika garaikidearen inguruan mugitzen da.

IRITZIA ▶ MIGEL ZEBERIO (ABESBATZA ZUZENDARIA)

Kantua eta abestia nonahi Tolosan



Kantua eta abestia nonahi Tolosan. Soinu tresna merkeak kalez kale eta antzokian. Soinu tresna merke bai, baina ezin erosi, hau bai maikaren mauka. Soinu tresna xumea baina xamurrena, saltzen ez den mauka merkea. Barru barrukoa, arnas estu edo lasai, barrunbetik eragindakoa, sakonekoa.

Haur, gazte eta heldu, jada denak hauspoe prest dira, sentipen hunkigarrienak eskeintzeko. Hala egin ohi dute Tolosan udazkenero! Basque Country, you know?

Ez pentsa burutapen hau asmakizuna denik. Baieztape hori, horrelakoa da

abesbatzen mundu partikularrean. Gurea bagatoz, ordea, zer? Astebereren barruan, horrelako jende andana biltzeko gai den beste horrelako une askorik ba ote dagoen, gure buruari galdetuko bagenio?

Jada, joandako berrogei azken urte hauetan zientzok euskal abestik eta olerkik jaso du arrotzen ekin eta hatsa. Euskalgintzaren esparruan, gure eremutik at, horrelako zabalkunde eta arrakasta lortu duenik gutxi izango da ziurrenik. Tamalez, ez dut uste dagokion garrantzia aitortzen zaionik. Jada martxan dagoen, hau da, asmatu beharrik ez dagoen gune hau, abiapuntuztat erabiltzea zilegi litzateke bederen, euskal sorkuntzaren bozgoragailu, era eragingarrigoan; Kultur eragile nagusien onarpen eta bultzada zabalgoak oihartzun nabarmena lortuko zukeelakotan nago.

Kudeaketaren maila gorenetik apalago-etera bagoaz, Lehiaketa honi eskaini diezaiokigun erabilgarritasuna ere anitza eta oparoa da.

Donostian eskoletako haurrak, musika eskolako entzunaldietara eramaten dituzte autobusez, baita Zinemaldiko pase bereziatar ere eta gainera mokadua ere oparitzen diete. Tolosaldea Donostia baltiz, Ukraina, Kanada edo Singapurretik etorritako arrotzak ezagutzeko okasiorik izango ote lukete? Eta bokata?

Finean, bertakoek arrotza eta munduko jendeek gure kultura ezagut dezaten, jada jorratuak dauden zidorretatik, bideak eraikitzen ekitea da gure egin beharra eta hau musikaren esparru mugatuagoak eskaintzen dizkigun abantailak aipatu gabe. Norbait gehiagok honetan sinistuko balu...

MIXED CHOIR OF LATVIAN ACADEMY OF MUSIC

Jatorria. Riga (Letonia).
Zuzendaria. Ints Teterovskis.
Taldekieiak. 22 emakume eta 22 gizon.

Historia. 1945. urtean eratu, bere abeslariak Letoniako Musika Akademiako abesbatza zuzendaritzako eta musika pedagogiako departamentuetako ikasleak dira. Abesbatza honen helburua Letoniako etorkizuneko haur eta heldu abesbatzetako abeslari gazteak osatzea da. 2005. urtetik bere zuzendari estilistikoa Ints Teterovskis da. Hain zuzen ere, bere zuzendaritzapean abesbatzak Mariborreko Nazioarteko 8. Abesbatza Lehiaketan (Eslobenian) Grand Prixa irabazi zuen.

SYC ENSEMBLE SINGERS

Jatorria. Singapur (Singapur).
Zuzendaria. Jennifer Tham.
Taldekieiak. 18 emakume eta 12 gizon.

Historia. Aurretik Singapore Youth Choir bezala ezagutzen zen, herrialdeko abesbatzarik zaharrenetakoa da eta atzerriko jaialdietan parte hartu izan zuen lehena. Nazioarteko zenbait jaialditan garaikurrak ere jaso zituen. Audizio bidez aukeratuak, abesbatza abeslari sutsuek osatzen dute, ahotsaren kalitatea lanaren bidez lortzen dela eta ahotsa kontu handiz erabili behar dela uste dute. Jennifer Tham da gaur egun bere zuzendaria Asia South Pacific Symposium on Choral Music-eko Zuzendari artistikoa izan zen.

CANTORIA DE MERIDA

Jatorria. Merida (Venezuela).
Zuzendaria. Jose Geraldo arrieche.
Taldekieiak. 16 emakume eta 10 gizon.

Historia. Ruben Rivas Meridako maisuak 1975. urtean sortu zuen taldea eta bere zuzendariak izan dira ondorengoak hurrenez-hurren: Ruben Rivas, Guido Minoletti, Hugo Lopez Gaur egun, Jose Geraldo Arrieche ari da lan horretan. Talde honek, eskualde, nazio eta nazioarte mailan ibilbide garrantzitsu bat garatu du, batez ere, kontzertuetako abesbatza da eta bertan parte hartzen du helduen taldeak. Abesbatza hau aurretik gogor eta probetxuz egindako lanaren fruituak jasotzen ari da, 1979. urtean haur abesbatza martxan jarri zuenetik. Hala, eskualdean lan artistiko handia egiten ari dela esan behar da.

Golden sagarren magia

Azaroaren 3an aurkeztuko dute euren lan berria Abesbatza Lehiaketaren baitan

ERREDAKZIOA

Aurtengo Abesbatza Lehiaketaren baitan, emanaldi bereziaz gozatzeko aukera izango da Leidor aretoan. Hain zuzen ere, Golden Apple Quartet (Golden Sagarren Laukotea) taldeak ikuskizuna eskainiko du azaroaren 3an, 20:00etan.

Dagoeneko 21 urte bete ditu bere sorreratik, eta hori dela eta Tour 21 delakoa prestatu dute beraien azken lana jendaurrean aurkezteko, *Los Golden en serio*, hain zuzen. Beraien zazpigarren lana da.

Azaldu dutenez, «guztiek izango dute disfrutatzeo aukera ordu eta erdi iraungo duen saioan, une batez utziz bizitza era serioan hartzeari».

1986ko urrian osatu zuten taldea, «guztien lagun den lagun baten zoriogaitzeko istripu baten ondorioz: ezkondu egin zen». Zeremonian zehar, beraien lau ahotsak «distiratsu» entzuko ziren, eta ordutik «beterako maitasuna zin egin zioten».

Beraien errepertorieta nota nagusia Godspell musika (beltz izpirituala) zen, horrekin hasi zuten bere musika ibilbidea; beranduago estilo guztietako eta ikuslego guztientzako emanaldiekin zabaldu zuten. Argiz eta soinuz betetako beraien emanaldietan, umorea batetik bestera gailentzen da. Entzulegoaren arrakasta handiarekin kontaktzen dute eta diotenez, beraien dira harritzen diren lehenak.



Golden Apple Quartet taldearen bira berriaren kartela. HITZA

KULTURA ▶

Egitarau oparoa azaroan

Urriaren ostean, era guztietako ekitaldiz gozatzeko aukera izango da

ERREDAKZIOA

Urria ekitaldiz beterik igaro da, eta azaroan ere askotariko ekitaldiz gozatzeko aukera paregabea izango da.

ARANBURU JAUREGIA

'Ipuinartean II'. Ereitek antolatuta, azaroaren 10era arte.
Titirijai. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko erakusketa. Azaroaren 25etik abenduaren 2ra.

KULTUR ETXEA

Hitzaldia. *Psicología positiva como modelo de salud* hitzaldia emango du Iñigo Jimenezek, Asuncion Klinikak antolatuta, azaroaren 5ean, 19:30ean.
Odol ateratzea. Hileroko odol ateratzea, azaroaren 19an.
Sentsibilizazio Astea. Gaingaitzen elkarteak antolatuta, azaroaren 15etik 18ra. Σ
Euskal Herriko Unibertsitatearen jardunaldi informatiboa. Azaroaren 19an, 18:30ean.
Mendi Hamabostaldia. Oargi elkartearen Mendi Hamabostaldiko proiektzioa, azaroaren 20ean, 18:00etan.

Hitzaldia. *Amor, locura y ambicion en Juana La Loca y Felipe El Hermoso*, Kutxak antolatuta, azaroaren 29an.

LEIDOR ARETOA

Zine foruma.
▶ *Los climas*, azaroaren 8an.
▶ *Muerte en venecia*, azaroaren 15ean.
▶ *Esto es ritmo*, azaroak 22.
Zinema.
▶ *Sin reservas*, azaroaren 9tik 12ra.
▶ *Promesas del este*, azaroaren 16tik 19ra.
▶ *Tinko*, azaroaren 19an.
Haurrentzako zinema.
▶ *Erase una vez... un cuento al reves*, azaroaren 11n, 17:00etan.
▶ *Lassie*, azaroaren 18an.
Antzerkia. *El jefe de todo esto*, azaroaren 10ean, estreinaldia.
Mundua Tolosan.
▶ *Cesaria* Evoraren kontzertua, azaroaren 13an.
▶ *Carlos Nuñez*, azaroak 23.
Sentsibilizazio Astea. Azaroaren 16 eta 17an, Gaingaitzen elkarteak antolatuta.
Nazioarteko Txotxongilo



lazio Titirijai. I. TERRADILLOS

Jaialdia. Azaroaren 24tik abenduaren 2ra arte.
Kilometroak 08. Aurkezpen ekitaldia, azaroaren 18an.
Santa Zeziliako kontzertua. Tolosako Musika Bandak antolatuta, azaroaren 25ean.

BONBERENEA

Kontzertuak.
▶ *The Uski's* eta Sukan, azaroaren 2an, 22:30ean.
▶ *Ost eta Muted*, azaroaren 3an, 22:30ean.
▶ *Ainara Legardon* eta Saioa, azaroaren 9an.
▶ *Jone* eta Etxe, azaroak 10.
▶ *Kerobia* eta 121 dbs, azaroaren 16an.

- ▶ *Vice president* eta *Moksha*, azaroaren 17an.
- ▶ *Obligaciones* eta *33 L'envit*, azaroaren 23an.
- ▶ *Mulanbo* perkusio taldea eta *Euskalduna* naiz eta afro nago, azaroaren 24an.
- ▶ *Sleepers*, azaroaren 29an.
- Zine kluba.**
- ▶ *Cafe solo o con ellas*, azaroaren 11n.
- ▶ *Supersalidos*, azaroaren 25ean.

BESTERIK

Eskaparatismoa. Ikastaroa azaroaren 5etik aurrera.
Hitzaldia. *Gizakia eta erlea*, Luis Mari Intzak eskainia, Tolosako EPAn azaroaren 9an.
Abiba. Diskojaia, Beotibarren, azaroaren 10ean.
Babarrun Festa. Azaroaren 10etik 18ra.
Galera kognitiboak. Azaroaren 12tik 16ra. Dementia, Alzheimer... dituzten pertsona nagusiekin lan egiten dutenen prestakuntza, Gizarte Zerbitzuek antolatuta.
Ipuin kontaketa. Miriam Mendozarekin, azaroaren 14an, Errotan.
Udaberri. Dantza taldea, azaroaren 17an, Beotibarren, Babarrun Festaren barruan.
Liburu Azoka. Azaroak 23tik abenduaren 2ra arte, San Franzisko pasealekuan.

ZIZURKIL ▶ NEKAZARITZA

Nekazari ekologikoa izateko ikastaroa abian jarriko dute

Azarotik apirilera bitartean 360 orduko ikastaro trinkoa antolatu dute Fraisoron

IMANOL GARCIA

Itsasmendikoi Fraisorok eta Ekonekazaritza elkarteak abian jarriko dute nekazaritza ekologikoan trebatzeko ikastaroa. Klaseak azarotik apirilera izango dira eta Fraisoron izango dira.

Leire Agirre ikastaroaren koordinatzaileak eta Jesus Calvillo irakasleak azaltzen dutenez, «ez dira inoiz eman hainbeste erraztasun ikastaroa egiteko. Nekazaritza ekologikoan instalatzeko urrezko garaia da eta, harropuzkeririk gabe, aukera historikoa dela esan daiteke».

Ikastaro osoa

Ikastaro trinkoa da, hau da, 360 ordukoa. 250 euro ordaindu behar dira ikastaroa egiteko. Hainbat baserriar ekologikoekin harremana egiteko aukera izango dute ikasleek, beraien lurretara joango baitira klaseak hartzera. Beste kla-



Aurreko ikasturte batean ikasleak negutegi batean praktikak egiten. HITZA

se praktiko asko Villabonako Udalak duen lur eremu batean egingo dira. Lur horiek gero alokairuan hartzeko aukera izango dute ikasleek euren proiektua abian jartzeko. Horrez gain, ikastaroaren amaieran praktikak egiteko aukera izango dute eta nahi izanez gero beka bat jaso ahaliko dute

baserri batean urtebetez aritzeko, soldata bat jasoz.

Aukera guzti horiek izatea azpimarratzen dute Agirrek eta Calvillok eta ikastaroa bera osoa izatea. «Barazgintza, fruitagintza, belardiak abeltzaintza, gestioa, produktuen eraldaketa eta komertzializazioa... gai ugari jorratzen dira ikasta-

roan», dio Agirrek. Nekazari-erentzat eta nekazari izan nahi dutenentzat eta nekazaritza ekologikoan hasteko proiektua daukaten pertsonentzat zuzendua dago ikastaroa. Izena emateko epea hilaren 12an amaitzen da. Horretarako Fraisoroko 943 69 21 66 zenbakira deitu behar da.

MAHAI TENISA ▶

Bi porrot eta garaipen bat eskualdekoentzat

Eskualdeko taldeek bi porrot eta garaipen bat lortu zuten pasatu den jardunaldian. Bigarren mailako Usabal MT-Tolosa taldeak 4-0 galdutuen CD Artxandakoren aurka. Liga Autonomikoan CD Olaederra A-k 2-4 irabazi zion CD Artxandakori. CD Olaederra Bk 4-1 galdutuen CTM Gasteizen aurka.

IRURA ▶

Ikastaroetan izena emateko aukera zabalik

Irurako Udalak ondorengo hiru ikastaroetatik bi antolatu nahi ditu herrian azaroan eta otsailan hasita: lehen soro-sopen tailerra; edergintza, makilaje eta kosmetika tailerra eta gozogintza. Adin-nagusiko interesdun guztiak izena eman behar dute udal-txean, liburutegian, 943 69 13 33 zenbakira deituz edo kultura@irura.net helbidera idatziz hilaren 9a baino lehen.

TOLOSA ▶

Hilerrira joateko autobus zerbitzu bereziak gaurko

Gaur Santu Guztien eguna dela eta, hiribusarentzat ordutegi berezia ezarri da. Tolosatik hilerrira (Gorosabel geltokia) ondorengo orduetan aterako da: 09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan, 13:00etan, 15:00etan, 16:00etan, 17:00etan eta 18:00etan. Hilerritik Tolosara ondorengo orduetan: 09:30ean, 10:30ean, 11:30etan, 12:30etan, 13:30ean, 15:30ean, 16:30ean, 17:30ean eta 18:30ean.

VILLABONA ▶

'Locos por el surf' eta 'Tortugas Ninja', egunotan

Haurrentzako zinea ikusgai izango da datozen egunetan Gurea aretoan. Gaur, 18:00etan, *Locos por el surf* emanango dute, 3 euroren truke. Etzi eta igandean, 17:00etan, *Tortugas Ninja* emanango dute, 3 euroren truke. Bi filmak gaztelaz izango dira.

AIZTONDO ▶ AISIA



Larraulgo parajeak ezagutzeko aukera paregabea izan dute

Erredakzioa ▶ Eguraldi eta giro ezin hobearekin egin zuten igandean Larraulen Aiztondoko Kultur Zerbitzuak antolatutako mendi irteera. Larraul, Alkiza eta Adunako haur eta gurasoak izan dira bertan parte hartu dutenak. «Azpimarratzekoa izan da haur txikien ere nola erantzun duten ibilaldiak zituen aldapan aurrean», azaldu dute antolatzaileek. Paraje ikusgarriez gain, Murgileko gai-

lurra barne, bertako biztanleen gidaritzapean, baserri ikusgarriak kanpotik zein barrutik ikusteko aukera izan da gehien eskertu dutena bisitariak. «Aparta izan da Larrunbide-Etxeberri baserrian taldeari egin dioten herrera eta eman dizkioten azalpenak», zehaztu dute. Hurrengo ibilaldia Adunan izango da, eta haren ondorengo, berriz, Alkizan. Irudian, parte-hartzaileak, hasi aurretik. HITZA

ORENDAIN ▶ HIRIGINTZA

Bizia herrira eraman nahian

Eskolapioetan, udaletxearen atzealdean udaberria aldera 19 etxebizitza tasatu egin behar dituzte; izena emateko epea abenduaren 31n bukatzen da



Orendaindik ikusten den ikuspegi ederra. Etxebizitza berriak Eskolapioetako egoitza zaharra dagoen lekuan eraikiko dituzte. N. URBIZU

TOMAS PLAZAOLA ▶ OREDAINGO ALKATEA

«Guk herria egingo duen jendea nahi dugu etxebizitza hauetan»

Tomas Plazaola alkateak (Legorreta, 1953) Orendaingo etxebizitza berriei buruzko informazioa zabaldu du.

Jende gaztea nahi duzue herrian: amuak zein dira?

Gure ingurunean zein nolako enpresak ari diren garatzen ikusita, eta eskaera erreala daudelako, 400 metroko lursaila dago erreserbatuta. Horrez gain, 200 metro eguneko zentroa egiteko. Beste guztia etxebizitzetarako erabiliko da. Jendeak, orduan, herrian bertan lan egiteko aukera izango du: hori da gure apustua. Bestetik, haur eskola ere badugu, goizez eta arratsaldez. Horrez gain, ludo-teka astean bitan edo hirutan ere badago. Honela herri-giroa sortzeko aukera gehiago dago.

Zein lan motak izango liriteke enpresa horietan?

Telemarketing-a, formazioa, itzulpenak, dokumentu kudeaketa, diseinu grafikoa... Halakoa. Leku fisiko berezia behar ez dutenak dira. Eskaera egongo balitz egingo da.

Herria aldatu egingo da.

Bai soziologikoki eta baita fisikoki ere. Etxebizitza asko ez dira, baina aterpea, 27 autorentzako lekua duen aparkalekua, zirkulaziorik gabeko plaza inguru, eta abar izango ditu.



Udaletxe aldetik joan beharko da pilotalekura, esaterako. Saihesbideren bat egongo da.

Etxebizitzak noiz hasiko liriteke?

Udaberrian hasteko asmoa dago, eta 24 hilabete inguru beharko dira obrak bukatzeko. Kudeaketaz Arrasate inbiliaria arduratuko da. Kostuak, berriz, prezio erreala gehi Arrasate higiezin agentziari ordaindu behar zaion %10.

Erabiliko duzun materiala erabakita dago?

Bai, zehaztuta dago, baina saiakera bat egin nahi dugu. Egitura guztia burniz egitea, alegia, honek prezioa jaitsiko luke. Goierrin dagoen Lortek-en bi-

dez (Arcelor enpresaren institutua). Alde batetik, prezioa baxuagoa, egonkortasun handiagoa eta aurreneko esperientzia Tolosaldean. Honela, agian, onuraren bat izango genuke, aitzindari izatearekin. Arcelor Mittal enpresako zuzendari ohia den Juan Jose Aroztegi asko lagundu digu bitartekari lanetan. Burniaren kontua aurrera eramateko lagunduko digula esan du beti.

Etxebizitza hau lehen etxebizitza izan behar da.

Adibidez, orendaindar bat Alegian bizi da, baina nahi badu, etxe hori saldu, etxe berria eskrituratu baino lehenago egin beharko luke. Ez dugu etxe hauetan aberats jendea nahi. Gutxienez 15 urte bizi beharko liriteke, eta saldu nahi izanez gero, udaletxearen esku geratuko liriteke eta honen bidez obrak bukatzeko BEZA ordaindu beharko lukete. Guk herria egingo duen jendea nahi dugu.

Kasu bereziak ere badaude.

Bai. Adibidez, baserritarren bat edo isolamentu soziala jasaten duen baten batentzat. Etxebizitza hauetara etorri nahi duen jendeak ere hor sartzeko aukera ere izango du, baina Orendaingoa izan beharko da. ◀

NEREA URBIZU

Herriari bizia emateko. Hori da Orendaingo Udalak nahi izan duena egingo dituzten etxebizitza berriekin. Etxebizitza tasatuak izango dira, eta hauen funtzioa zein den jakin nahian, «lo-leku ez dugu nahi izatea herria, parte-hartzailea eta bizitzarekin baizik». Hala adierazi izan du beti Orendaingo alkateak, Tomas Plazaolak.

«Herria gaztetu eta herrian bertan lan egiteko aukera eskaintzea» da Orendainek nahi duena etxebizitza hauekin. 145 biztanle inguruko herria da, eta baieka izateaz gain, zerbitzu garrantzitsu bat badu: haur eskola, alegia. Honela, haurrek 0 eta 3 urte izan bitartean bertan ikas dezakete. Kokapen aldetik ere interesgarria da Orendainek daukana, Txindoki eta Aralar aurrean baititu: bistak, beraz, ia ezin hobekak dira.

Udaberrian hasiko dira

Etxebizitza hauek 3 bloketan egingo dituzte, eta bi pisukoak izango dira. Igogailua ere izango dute, eta lur azpian dauden garajeetatik abiatuko da. Pisuaren prezioa «gehienez ere 230.000 eurokoa izango da. Honen baitan sartzen da inbiliaritari ordaindu behar zaiona, hau da; %10». Plazaolak esan bezala, Prezioaren baitan ez dago garajearena eta honek 12.000 euro inguru balioko du. Udaberrian hasiko liriteke eraikitzen etxebizitza hauek.

Tomas Plazaola alkatearen hitzetan, «dagoeneko jendea izena ematen ari da. Badakigu herritarrekin bakarrik ez dela zerrenda guztia osatuko: beraz, Tolosaldeko eta Goierriko jendeak dauka ondoren preferentzia». Puntuazio bidez, noski, Tolosaldekoek puntu gutxiago izango dituzte Oren-

DATUAK ▶

Gaia. Etxebizitza tasatuak. **Lekua.**

Orendaingo Eskolapioen egoitza dagoen lekuan. **Pisu kopurua.** 19. **Baldintzak.** 40 urtetik behera izatea, herrian erroldatua izatea gutxienez urte batez, eta gero Orendainen hamabost urtez erroldatuta egon direnak, eta Tolosaldeko eta Goierriko eskualdeetan erroldatuta daudenak.

Enpresa kudeatzailea.

Arrasate inbertsioak eta zerbitzuak.

Arkitektoa.

Jose Maria Smith Solaun.

Salmenta. Kutxa.

Babeslea.

Orendaingo Udala.

Izena emateko epea.

Abenduak 31.

Metro kopurua. 94 m²

inguru erabilgarriak.

Prezioa. Gehienez,

230.000 euro.

Izen-ematea. Orendaingo

udaletxean (943 65 40 64),

Arrasate Inbertsioak

eta Zerbitzuak SAn

(902 117 017), edo

arrasate@inmoarrasate.com.

daingoek baino, baina baldintzak berdinak izango liriteke: «gazteak izan eta lehenengo bizitza izatea».

Sustapena Kutzaren esku

Sustapen hau kooperatiba-erregimenean egingo da, eta Arrasateko Arrasate Inbertsioak eta zerbitzuak gestoretzak kudeatuko du. Etxebizitzetako adjudikaziodunak hautatutakoan, kooperatibako kide izatera igaroko dira, eta kide guztien artean zuzendaritza-batza osatuko da. Jauregialde kooperatiba izango da etxebizitzasustapen honen enpresa sustatzailea, eta etxebizitzek Orendaingo Udalak bideratutako prezio tasatua izango dute. Etxe-sustapen hau Kutzak finantzatuko du, eta ordaintzeko baldintzak adjudikazio guztiek ordaindu ahal izateko modukoak izango dira.



Orendaingo etxebizitzaren itxura, atzeko aldetik. HITZA

BERASTEGI ▶ KULTURA

Musikarekin hasi eta Azokarekin amaituko dute Kultur Astea

Hilaren 9tik 18ra ospatuko duten arren, Gaztainondo Elkartearen onddoen erakusketa egongo da hilaren 5etik 11ra



Iragan urteko Kultur Asteko azken egunean azoka jendetsua egin zuten Berastegin. INEREA LIZARTZA

ASIER IMAZ

Kultur Astea hilaren 9an hasiko da Berastegin. Azken eguna berriz, hilaren 18an izango, egun horretan Azoka burutuko dute frontoian eta egun guztian zehar, lehiaketak, herriko produktuak eta eskulanak ikusteko aukera egongo da.

Hilaren 5etik 11ra, Gaztainondo Elkartearen onddoen erakusketak atek zabalduko ditu Lizarrusti Parkeko kideen eskutik. Astearen zehar 16:30etik 20:00etara egongo da zabalik. Larunbata eta igandean berriz, 11:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

Argazki rallyko erakusketa ere zabalik egongo da Kultur Aste guztian zehar Urepele Elkartearen. Kasu honetan, lehiakideen argazki onena aukeratu dute Andoingo Zine eta Bideo eskolakok.

iragarki laburrak ▶

EROSTEKO

Txakurmea. Arratoi bakurkume bat erosi nahi dugu, arra izan dadila. 637 47 48 23.

EGITARAUA ▶

AZAROAK 9, OSTIRALA 21:30ean. Iñaki Plaza eta Ion Garmendiaren musika-tresnen historia eta emanaldia, Muñagorri Eskolan.

AZAROAK 10, LARUNBATA 09:00etan. Mendi irteera, onddo eta perretxiku bila.
16:00etan. Gaztainondo Elkartearen bildutako perretxiku eta onddoi buruzko hitzaldia.
18:30ean. Gaztain erre jana, sagardoa, ardoa eta musikaz lagundurik.
22:00etan. Muñagorri Eskolan Txiki Plazasen diapositiba emanaldia, iraupen eskiari buruz.

AZAROAK 11, IGANDEA 12:00etan. Meza.

Ondoren. Maiatzak akordeoi orkestraren emanaldia.
15:30ean. Basurde Elkartearen Mus Txapelketa herrikoa.
17:00etan. Muñagorri Eskolan, *Asto bat hipodromoan* haurrentzako antzerki emanaldia.
18:30ean. Frontoian *Lapur Zuloa* antzerki emanaldia egongo da.

AZAROAK 15, OSTEGUNA 16:30ean. Muñagorri Eskolan Idoia Sanchez ipuin kontalaria.

AZAROAK 16, OSTIRALA 21:30ean. Muñagorri Eskolan, drogen prebentzioaren buruzko hitzaldia, AGIPADen eskutik.

AZAROAK 17, LARUNBATA 17:00etan. Muñagorri Eskolan, *Zergatik bizi da txanogorrixuren amona basoan?* txontxongilo emanaldia.

Ondoren. Urepele Elkartearen txokolatada.
22:00etan. Muñagorri Eskolan Euskal zinema emanaldia.

AZAROAK 18, IGANDEA 11:00etan. Frontoian Azoka; Gazta Lehiaketa eta Berastegiko produktu eta eskulanak egongo dira eskuragai.
12:30ean. Gazta, postu eta argazki rallyko sari banaketa.
18:00etan. Lehiaketan parte hartutako produktuen dastaketa.

IBARRA ▶

«Bi puntutan izan ezik, aho batez»
Ohiko Bilkuran

Ibarrako Ohiko Bilkura here-negun burutu zen. Gai-zerrenda 9 puntuk osatzen zuten. Idazkariaren esanetan, «bi puntu izan ezik, beste guztiak aho batez onartu ziren. Lehen puntuan PSE-EE abstenitu egin zen eta hirugarrena mahai gainean utzi zen». Puntu honek «Udal plantilako langileentzat onuragarri diren baldintza ekonomiko eta sozialak, Udaltzaren sartzeko» zioen.

TOLOSA ▶

Kirolari onena aukeratzeko epea hilaren 9a

Tolosako Udal Kirol Zerbitzuti, inguruko kirol elkarteek ohar bat zabaldu nahi izan die. Bertan, urteko kirolari onenaren zerrenda bidaltzeko epea, hilaren 9an, gaur zortzi amaituko dela gogoratu nahi izan dute. Aldez aurretik eskerrak emanaz eta zerrenda bidaltzeko eskaria eginaz agurtu dituzte kirolari onenak aukeratzeko dituzten kirol elkarte guztiak.

TOLOSA ▶

Hildakoen inguruko usadio zaharrak ikusteko

Egun guztian zehar egongo da San Esteban auzoko 20.ean, *Hilentzako gonbidapena* ikusteko aukera. Goizean zabalduko dituzte atek eta bertan hilak izango dituzte gogoan. Etxeko edo inguruko hilei gehien gustatzen zitzaizkien gauzak erakusgai jarriko dituzte mahai batzuen gainean, hildakoengana eskaintza modura. Antolatzaileek «gonbidapen zabaluzatu dute».

IBARRA ▶

Ipuin kontaketa Kultur Etxean, hilaren 6an

Ibarrako Udal Liburutegiak haurrei zuzendutako ekitaldia aurkeztu du hilaren 6rako, astearterako. Benito Izagirre kultur etxean, 17:30ean ipuin kontalari saioa egingo da beraz asteartean. Bertan, Lur Korta izango da saioaren zuzendaria eta lau eta zortzi urte arteko haurrei zuzendua egongo da Udal Liburutegiak antolatutako ipuin kontaketa.

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA



Herritarrak «gustura» Jubilatu Egunak emandakoarekin

A. Imaz ▶ Belauntzako Jubilatuen Eguna azken asteburuan ospatu zen. «Arrakastatsua... oso ondo egon zen. Espero baino jende gehiago agertu zen eta bazkaria ere zoragarria izan zen. Tabernariak oso bazkari ona prestatu zuten». Bertan egondako partaideen hitzak giro ona egon zela adierazten dute. Toka txapelketa, eta bertso zaharrek ere bere tartea izan zuten Belauntzan. HITZA

MIKEL OLANO ▶ IDAZLEA

«Nire asmoa mendiko geografaren erretratu egitea izan da»

Mikel Olanok Irun Hiriko Kutxa literatur saria irabazi du Durangoko Azokan argitaratuko den eleberriarekin

NAIARA GARZIA

Azkuko *belagaien* nobelarekin irabazi du Mikel Olanok (Leitza, 1968) Irun Hiriko Kutxa literatur saria.

Zer kontatzen duzu eleberrian?

Bi plano bezala daude, plano bat printzipioz agerikoena, emakume mediku bati buruzkoa da. Hiri batetik ateratzen da eta Ameriketara joateko asmoa du, nekatuta baitago medikuntza publikoan, eta Nikaraguara joatea pentsatzen du-gobernuz kanpoko erakunde baten bitartez. Nobelan zehazki esaten ez den zerbait gertatzen da, eta denbora batez herri batetara joan behar izaten du, ordezkapen bat egitea. Herriara bertan denbora gutxi pasako duela pentsatuz iristen da eta Ameriketara joan ahal izango dela. Orduan pixkanaka emakumearen planoa herritarren bizimoduarekin gurutzatzen da.

Bi plano horiek gurutzatzen dira, beraz?

Bai, pixkanaka atalez atal berandutu egiten zaio Ameriketara joateko bidea eta orduan bigarren plano hori nabarmen-tzen hasten da, herriaren dinamikarena.

Liburu honetan gehien azpimarratu nahi izan duzun ideia zein da?

Nire asmoa mendiko geografaren erretratu egitea izan da, nik gainbeheran ikusten dudan gizarte modu honen erretratu. Orduan bururatu zitzaidan estrategia bezala nekaren istorioa txertatzea, baina



N. GARZIA

helburu nagusia zen herriaren gainbehera edo noraeza islatzea, orain arte nekazal bizimodu eraman duten herri horien noraeza.

Zergatik aukeratu zenuen gai hau?

Tokatu zaidalako, Leitza eta inguruko herrietan... inguruko hizkerak eta biltzen ibilia naiz, Ultzaman ere ibili izandu naiz lanean eta honetaz gain asko gustatu zait nekazalgoaren bizimodu. Mendizalea ere izan-du naiz, mendi apaletako zalea... azkeneko etapa hori eza-gutzea tokatu zait, eta ikusten duzu industria oso sendoa ez duten inguru hauek ze zailtasunak dituzten hiriko bizimoduarekin egokitzeko, eta batzutan ze desorekak gertatzen diren.

Hausnarketarako eleberri bat al da?

Ez dut esaten aspergarri mortala izan behar duenik, arintasuna ematen saiatu naiz, egiturari dagokionez ere ahalik eta atseginean egiten saiatu naiz, baina ez da abentura-nobela bat.

Izenburuak zer esan nahi du?

Hasieran *Biajea* izena jartzeko asmoa nuen, bidaia hitza ez zaidalako gustatzen, baina gero hau aukeratu nuen. Belagia da Bortzirietako hizkeran Leitza aldean belatxo esaten duguna, etxe ondoan egoten den belardia. Nobela gertatzen den herriak Estarta izena du, eta bertako herritarrek Bortziri, Baztan... inguru horretako hizkeraren antzeko zerbait hitz egiten dute.

ZILARREZKO JAURTIKETA ▶ JON ALTUNA

Sentsazio gazi-gozaok



harbada denboraldiko partidarik onena jokatu genuen, baina ezin izan genuen garaipena lortu. Nahiz eta taldeak itxura ona eman, ez genuen partidua amaitzen jakin eta azken orduan bi puntuek ihes egin zuten. Partidua joan zen moduan joanik, hamarretik bederatzi partiduko gureak izango ziren baina bat hori egokitu zen oraingoan. Ongi jokatzeak eta ez irabazteak sentsazio gazi-gozaok uzten du, horregatik askotan nahia-go izaten da okerxeago edo gaizki jokatu eta irabazi. Honelako egoerek ezinegon sortzen diote taldeari, baina aurrera begiratu besterik ez zaigu geratzen.

Aste honetan egoerari buelta emateko partiduko berezia dugu, euskal derbia Gasteizen. Partidu polita izango da Alavesen aurkakoa. Giro, talde eta leku ezin hobekak garaipenaren bidea berreskuratzeko. Ea zortea aldeko dugun!

Epaileak esan arte ez da partidua amaitzen! Entrenatzaileek askotan esaten duten esaldi bat da. Eta aste honetan, topiko hori egi bihurtu da, izan ere, azken orduan garaipenak ihes egin zigan.

Tenerifeko bidaiaren ostean, berriro ere Ipuuara bueltatzen ginen. Asteburua herrian pasata, ostiralean Bonbereneako kontzertura joateko parada izan nuen. Denboran hamar urte atzera egin genuen, zenbat oroitzen on, eta berriro laztana abestiak bihotza jo zigan. Orain ezin gara kexatu, baina, ongi bizi ginen orduan inongo buruhausterik gabe.

Salamanca taldea etorri zen bisitan Ipuuara. Diotenez, be-

PILOTA ▶

Pilota eskola, hainbat txapelketatan aurrera

N. GARZIA

Orotara 12 norgehiagoka jokatu zituzten Leitzako Aurrera Pilota Eskolako pilotariek joan den asteburuan eta guztietatik 9 irabazi zituzten.

Larunbatean Nafar Jokoen barruan 6 norgehiagoka jokatu zituzten Amazabalen eta hauetatik 3 irabazi zituzten. Egun horretan bertan, Burlatoko Txapelketan aise irabazi zuten (18-2), eta Jaunarenak eta Bolinagak ere irabazi egin zuten Diario Vasco Txapelketan.

Bestalde, Lizarrako Txapel-



Nafar Jokoak, Leitza. HITZA

ketari dagokionez, bertan larunbatean eta igandean jokatu zituzten 4 partidak ere irabazi egin zituzten.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Orexa. *Inaxitoren ametsak* haurrentzat antzezlan ezaguna eskainiko da 16:30etatik aurrera Orea udaldebeko ganbaran eta ondoren, merienda izango da haur guztientzat.
Tolosa. 39. Abesbatza Lehiaketa: Haur Abesbatza (Estonia, Orereta, Kanada, Hungaria, Gasteiz eta Errusia) Leidorren 11:00etan eta helduak (Suedia, Alemania eta Belgika, Singapur, Letonia eta Venezuela) 16:00etan eta 19:30ean.
Ugarte. Sardina-jatea Ugarten izango da iluntze partean. Txartelak salgai daude herriko tabernetan. 10 euroren truke. Txartelak azaroaren 4ra arte izango dira salgai. Beraz, erabakia hartua baduzue, ez egon zain, eta segi txartela erostera.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
Iruztzun. Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.
▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Euskal jolasak lantzen


ANOETA ▶ Xiba proiektuaren baitan, Anoetako Ikastolako, Tolosako Hirukide eskolako eta Alegiko Aralar Institutuko DBH3ko ikasleak jolasean aritu dira



Eskuak askatu gabe taldeko guztien arteko uztai pasatzea izan zen jolasetako bat. I. GARCIA

ERREDAKZIOA
Anoetako kiroldegia mugimendua, algarra, urduritasuna zen atzo goizean. Eta batez ere jolasa, euskal kulturarekin zerikusia duten eta elkarrekin egin behar diren jolasak. Xiba proiektuaren baitan, eta Kutxak lagunduta, Anoetako Ikastolako, Tolosako Hirukide eskolako eta Alegiko Aralar Institutuko DBH3ko ikasleak aritu ziren oraingoan hainbat jolasekin ondo pasatzeko.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Jon Etxeberria Garmendia (Tolosa). Atzo 4 urte. Zorionak etxekoan partetik.
URTE ASKOAN
Tomas Arostegi (Bidania). Gaur 89 urte. Zorionak eta muxu handi 1 denon partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.
▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaldebeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

07-08 DENBORALDIA

BRUESA GBC
Alerta Cantabria

OSTIRALA
AZAROAK **2-20:30**
ILLUNBE

SHOSBASTIAN GIPIZKOR BASKET 2019

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK
Bruesa-GBC / Alerta Cantabria
saskibalo taldeen arteko partidarako lau sarrera pare zozketatu ditu eta hauek dira irabazleak:

▶ Bittor Lizarralde (Tolosa) ▶ Iolanda Etxeberria (Larraul)
▶ Izaskun Zabala (Berrobi) ▶ Arantxa Zinkunegi (Tolosa)

Sarrerak HITZAren Tolosako bulegoetan izango dituzue, pasa zaitzete haien bila lehenbailehen. ZORIONAK!!

hitza Harpidedunen **txokoa**

HITZAko harpidedunen artean **Astlehenean**, Azaroak 5, **16:30**ean **Beotibar pilotalekuan** jokatu diren pilota partidarako bi sarrera pare zozketatuko ditugu!

aspepelota.com

Eugi - Goñi III
Capellan - Eulate

■■■■■

MENDIZABAL II
APEZETXEA

■■■■■

Uriarte - Argote